



Esp.-kodea: 2016AINS0001

LAGAPEN HITZARMENA

BILDU DIRA

Batetik María Ubarretxena Cid, NA zk. 72451129W, Arrasateko Udaleko Alkatea.

Bestetik, Carlos García Crespo, NAN zk. 30627545-D, MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOaren izenean (aurrerantzean LAGAPEN HARTZAILEA).

ADIERAZTEN DUTE:

Alde biek, esku hartzen dutelarik, kontratu hau egiteko beharreko ahalmena aitortzen diote elkarri. Adierazten dute Arrasateko Udala UARKAPE eraikinaren titularra dela, eta MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOko orla banaketa ondorengo luntxa, Maiatzak 20 eta 27an, UARKAPE eraikina lagatzeko kontratu hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK:


1. Goian sinatzen duenak laga zaion jarduera egiteko baino ezingo du erabili lagatzen zaion instalazioa. Debekatuta dago edozelako afekziorik egitea UARKAPEko instalazioei, haietan edozein aktuazio muntaia egitea; horiek egiteko, Arrasateko Udalaren baimena beharko da aurretik.

2. **SEGURTASUN ARAUAK:**

- ✓ LAGAPEN HARTZAILEAK konpromisioa hartzen du segurtasunari buruz indarrean dauden arauak betetzeko; hori dela-eta instalazioen AUTOBABESEKO PLANA eta LARRIALDI PLANA bete beharko ditu.
- ✓ Bereziki UARKAPE eraikinean larrialdietako irteeren eta suteen aurkako neurrien gehieneko edukierari buruzko zehaztasunak bete beharko ditu. Ezingo da gainditu instalazioen gehieneko edukiera eta larrialdietako irteerak erabiltzeko moduan egongo dira uneoro.
- ✓ LAGAPEN HARTZAILEAK mahaiak, eszenatokiak edo antzekoak erabili behar izenez gero, honekin batera doazen planoetan deskribatutako eran jarri beharko ditu.
- ✓ Kasu batean ere ezingo du sartu gai sukoiarik, ez dago erabiltzerik edo garrantzerik UARKAPE barruan gasolina azetilenorik, petroliorik edo beste edozein gai sukoiarik, eta ezingo da erabili banakako berogailurik.
- ✓ Arriskurik egonez gero pertsonentzat edo instalazioetarako, eten egin beharko du argindarra. Harguneeen konexioak Arrasateko Udalak baimendutako teknikariek egingo dituzte beti, eta guztiz debekaturik dago beste edozein ibiltzea sarearen hargune kutxetan.

3. **AUTOBABESTEKO PLANA:**

- ✓ Kasu guztietan, lagapen hartzailea bere kideen arduradunak izango da.
- ✓ Arrasateko Udaleko langilerik egon ezean, lagapen hartzaileak kudeatu beharko du larrialdia, entregatutako autobabeseko planaren arabera.
- ✓ Azken kasu horretan, garrantzitsuena izango da abisua ematea kanpoko laguntzei eta Jose Luis Etxebarrinari, Arrasateko Udaleko babes zibileko teknikariari. Telefonoa 696450545.





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kirol Saila ■

Esp.-kodea: 2016AINS0001

Arrasate, 2016ko maiatzaren 17a

Sin. María Ubarretxena Cid

Alkatea

Sin. Carlos García Crespo

MONDRAGON GOI ESKOLA

POLITEKNIKOA

